

ZAHARTZEA DERRIGORREZKO HAZTEA BORONDATEZKOA

1

Hogei urte ta Patxi hor dabil
ganora barik galduta,
larogei urtez gure aitita
boluntario sartu da.

2

Pantxikek daukan buruko mina
kentzen bizar ta zimurrak!
gaixoak zaintzen nahiko zeregin
Eduerne bihotz-samurrak.

3

Batzuk hor dagoz denporapasa
inungo zeregin barik,
zaharrago diran askok ez dauke
galduteko denporarik.

4

Aititamama asko hor dabiz
zer egin ta zer emongo,
ta beste asko mila atxakiz
egiten deutsue tongo.

5

Gorputzez makal dagozan asko
barruz dira makalago,
zahar makal asko barruz bizkorak,
Espiritua hor dago.

6

Herrena bizkor, makala sendo
ni ez naz ameslaria,
Jesus Jaunaren Espirituak
egin ahal dau miraria.

7

Eleizak badau taller barri bat
zaharrak berziklatzekoa,
Jainkoa lagun, mirari batzuk
egiteko antzekoa.

8

BIZIAN GORA da taller hori
zaharrentzat osasungarri:
zeinek lagundu izango dozu,
borondatea zeuk jarri.

9

On egin eta ona izaten
hor ezin da jubilatatu;
aukera zeure eskuan dago
eta zeu espabilatu.

10

Guztiok gara bideko lagun
ez gara bizi aparte;
ondo bizi ta agur bihotzez
zeuok nahi dozuen arte.

A.Martzel